



Frantziaren parte hartzea industrian

BERRIA

«Zentzugabea da hiltorian dagoen marka baten alde dirutza botatzea»

Vincent Frigant •
Bordeleko Unibertsitateko
Ekonomia irakaslea

Estualdietatik irteteko erreminta baliagarritzat ditu nazionalizazioak, ez helburutzat. Bide hori «neurrian» hartu behar dela dio, eta esplikatzen du gaur-gaurkoz «kasik nimitioa» dela Parisen parte hartzea enpresen eguneroko kudeaketan.

O.V.

Bordeleko Unibertsitatean dihardu irakasle Vincent Frigantek (Bordele, Okzitania, 1968). Bide oparora egin du ekonomia gaietan, eta azken urteotan, batik bat, industriaren jarria du arreta. Gerpi-

sa eta Gretha ikerketa taldeetako kidea ere bada, eta gertutik aztertzen du Frantziako Estatuaren parte hartzea herrialdeko industrian. **Azpiegitura industrialak, militarak, sozialak eta, oro har, ekonomia-erantzutzat estrategikoak diren sektoreak nazionalizatze**

joera dago mendebaldeko estatuetan: garraioak, telekomunikazioak, aurrezki kutxak... Frantzia aitzindaria da. Zer desberdintzen du gainerakoengandik? Industria estrategiko jakinak nazionalizatzea ez dagokio zuzenean Frantziari, garai historiko bati baizik. II. Mundu Gerraren harira, nazionalizazioen aldeko apustua egin zuten herrialde ugari, bereziki sektore pribatuarekiko mesfidantzagatik. Gerrak gogor jo zituen enpresak, eta egitura sendorik gabe, ahots kritikoa gailendu ziren: sektore pribatua ez zela gai bere kabuz herrialdea berregituratzeko, enpresek soilik ezingo li-

«Esku pribatuen gain utzi aurretik, badaude aukerak enpresa bat onbideratzeko; nazionalizazioa, esaterako»

«Nazionalizazioak enpresa estrategikoen geroa kontrola dezake, funts atzerritarren esku geratzea eragotzita»

tuzketela berreskuratu industria estrategikoenak... Eta testuinguru horretan, nazionalizazioa beste biderik ez zen ia Europar.

Frantzia, baina, gerran murgildu aurretik ekin zieten nazionalizazio prozesuei. Zer dela eta?

1936. urte inguruan antzeman ziren lehen nazionalizazio arrastokak. Fronte Popular alderdi ezker-tiarra agintera iristearrekin batera: trenbide sarearen antolaketa hobetzeko, independenteki jarduten ziren enpresa pribatuei eutsi ordez, sektorea monopolizatzea proposatu zuen gobernuak. Gerra mehatxuaren aurrean, gainera, nahitaezkoa zen industria modernizatzea eta indartzea; hortaz, pribatizazioak ere egin zituen.

Eta joera hori areagotu egin zen gerora, gatazka urteen ondoren. II. Mundu Gerra amaitu berritan, nazionalizazio prozesuek indarra hartu zuten Europar. Zer esanik ez Frantzia; han egin zituzten garrantzitsuenak. Batetik, estatua suspertzeko tresnatzat ikusten zituzten. Bestalde, naziekin kolaboratu zuten enpresak zigortzeko baliatu zituzten; Renault izan zen neurria nozitu zuenetako bat. Ezin ahantzi Luis XIV.ak agintzen zuen sasoietatik dituela Frantziak ohiturok: 1660an, *estatu lantegiak* sortzeko plan aitzindari bat abiarazi zuen Colbertek. Ingalaterrarekiko desorekak orekatzeko hazia ezarri zuen, eta oraindik ere sarri oroitzen dugu. **Frantzia ohikoa bihurtu da larri dauden enpresen akzioak erostea. Nondik dator usadio hori?** Frantziarrok nerabazarotik jaso-

tzen dugun kultura partekatua-rekin lotuko nuke. Baliteke beste herrialde batzuetan baino ausartagoak izatea irtenbideak aurkitzen. Hemen ez dugu izurik estatua eraginkor bat sortzeko; bestela ez ginateke nazionalizazio inportanteen topaleku izango. Egun, aldiz, estatuaren esku hartzea salbuespena da: enpresa estrategiko gehienak pribatuak dira edo estatuak ez du parte hartze handirik.

Kontrola handia da oraindik ere. Bakanak dira urteotako kasuak: Almon eta Peugeot enpresen gisako auziak ez dira batere ohikoak. Egitura osasuntsudun enpresak estualdietatik irteten laguntzean datza Parisen esku hartzea, betiere luze gabe posible izan dadin berriz pribatu bilakatzea. **Renault, PSA, Air France, France Telecom, Airbus... Puntako enprestarta ailegatzen da parte hartzea. Beheraldi ekonomikoaren erakusgarri edo boterearen isla?**

Egia esan, ez bata, ez bestea. Enpresa handi horien erabaki estrategikotan gutxieneko kontrolak ezartzeko desioa islatzen du, batik bat. Eta erabaki estrategikoa diot, Frantziako Estatuak apenas duela parte hartzerik enpresen eguneroko kudeaketan; presentzia nimitioa du kasik. Estatuaren ordezkariak, esate baterako, oso oso diskretuak dira administrazio kontseiluetan, baita sindikatuen uestez ere. Maiz azaltzen dira kexu. **Frantziako ekonomia irekia eta aktiboa da; praktikan, dena den, zerbait protekzionista ere bada.** Frantzia ez da Europako beste estatuak baino protekzionistagoa. Europako Batasuneko hitzarmenek debekatzen dute hori. Nazionalizazioak, ordea, enpresa estrategikoen geroa kontrola dezake, funts atzerritarren esku geratzea eragotzita. Lege murriztaileekin sailhesten dituzte halakoak AEBetan. Parisen beste bide bat hartu badu ere, antzekoa da ikuspegia.

Erreminta baliagarritzat dituz, hortaz, nazionalizazioak? Estualdi ekonomiko larrietatik irteteko badira, bai: historia da horren isla. Bide hori, alabaina, neurrian hartu behar da, *ez de facto*. **«Enpresa bat gaizki badago, nazionalizatzea da onena». Ados?** Esku pribatuen gain utzi aurretik, badaude aukerak enpresa bat onbideratzeko, eta nazionalizazioa da horietako bat. Arazoak, alabaina, merkatuaren egiturekin eta lehiakide berrien agerpenarekin lotura baldin badu, zentzugabea da hiltorian dagoen marka baten alde sekulako dirutza botatzea.